

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

286n. zenbakia
uztailla - agustua 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



JAUNARI ZIÑA GERNIKA´N

- **JAUNA ERREGE**
- **KORREXIDOREA KANPOKOA**
- **ASKATASUNA URRITZEN**
- **FORU - BAIMENA BEAR**
- **ZIN EGIN BEAR**
 - **LARRABETZU ´N**
 - **ARETXABALAGANA ´N**
 - **GERNIKA ´N**
 - **BERMEO ´N**

OTO TA POTOTO

TORNILLOAK PALTA

Egun aretan ez zegoen gozo gure Oto.

Asarre ebillen eta ez zan gutxigorako: Renault 4-4 bat eukan eta kurpil bateko lau tornilloak galdu batera. Bermeo'ko zoro-etxearen aurrean gertatuz, an ebillen batetik bestera, nolan jokatu asma eziñik.

Alako batean zoro-etxeko leio batetik, zoro bat oska:

– Zer dok, txo, ain larri ibiltzeko?

– Zera, kurpil bateko lau tornilloak galdu batera.

– Errubera bateko lau tornilloak?

– Bai, eta ez dakit zer egin.

– Gauza gutxiatik larritzen az...

– Gauza gutxi? Ator i bera eta konpondu, ain erreza ba'da?

– Nik bera joaterik ez dot; bañan zer ori arin konponduko neuke.

– Laister konpondu? Nundik?

– Begira, jauna: osorik dauden iru kurpilletik tornillo bana kendu. Orra iru tornillo. Iru tornilloekin tornillo gabeko kurpilla lotu eta orrela lau errubera izango dabez iruna tornillo. Ibiltzeko aña izango az. Ez al da gauza erreza?

Zoroaren jakinduria ikusita, Oto egoen ao-zabalik arrituta gora begira eta onela diotza:

– Nolan sartun zaitue or barruan? Zergaitik?

– Zoroa nazelako; ez tontoa!

SANTU BERRIA

Donosti'ra joian Oto trenean Santotomasetan txistorra jatera. Zantar xamarra txamorrota edo... Dana dala, gerra odorena zan eta eldu jako poliziko bat:

– Documentación!

– Zer?

– Documentación!

– Ez dot ulertzen.

– Que me muestre la documentación!

– Zer ote dok ori?

Alako batean, aurrean eukan bibote txikidun gizaseme eskas arek, bere txamarraren solapa jasoaz, polizi-ikurra erakusten dio. Oto'k buruari atz egiñez onela diño berekasa:

– Orain be badogu santu berriren bat.

Jeiki aulkitik eta serio-serio, medalla aretan emoten doutsu musu eder bat.

EULIAK KAFEAN

– Artungo al dogu kafetxo bana?

– Bapo, bapo, gustora.

– Ia apur bat esnatzen garien, sargori be dagota.

– Nora joango gara?

– Café Oriental'era.

Oto, Pototo eta don Premin albeiteroa alkarrekin ebiltzan Donostia'n. Café Oriental'era joan dira kafea artzera.

Eguna bero be bai eta euli asko maai-inguruan. Moltsoa zurrubilloan. Motelduta egozan euliok eta jausi jakez

batzuek kafetara.

Don Premin txaloka deadar egiten morroiari:

– Txo, ekarri beste kafe bat.

Pototok kutxarillagaz eulia atarata, kafea artun dau onela esanaz:

– Ez noia beste kafe bat ordaintzera euli batengatik.

Oto'k katillua kirtenetik artunda, onela diño:

– Eulitxoa, anak bildu, barrura zoaz da!

LAU TXAMARROTE

Kortan txekor-sail ederra eukan Oto'k eta Jerolimo arakiña etorri zan goiz aretan bat eroatera. Astelena zala ganadua iltzeko eguna, eta astelenean joango zala txekorera eroatera...

Astelen-goiza. Egunsenti zoragarria etorren. Periko Fortuna astua lagun, ba doa erriruntz. Asto gañean txamarrote beltza, kiruzko alkandora zuri-zuria paparrean, pipa ezpañetan eta makilla eskuan.

Goi-arro doa zoriontsu.

Periko Fortuna makurgaitza zan, bañan kalerako usaiña artun ezker, nagusia baño pozago. txekorretik tirako zuan bai, ez bildurrik izan!

Mataderoko arazoak bete, gibela pañuelo batean jaso eta Manuel Abarkeroaren tabernara zuzen-zuzenean. Ainbeste neke pasata gero, ez al dau Oto nekazari berriak arnasa artzeko atsedean apur bat merezi, ala?

Bai orixe!

Arratsaldea aurrera, Oto tabernatik atara zanean.

Bero be bai.

Ez dakigu ziur berotasuna kanpotik ala barrutik zan!

Bear ba'da, bi aldetatik. Ez ote zan barrukoa kanpokoa baño geiago izango? Dana dala, Oto bero joian eta txamorrota kendu eta asto gañean imiñi dau.

Bidea ez zan ain leuna eta txamorrota, astotik lurrera...

Pazintzi guztiaz, bizkarra makurtu eta txamorrota berriro asto-gañera.

Ez zuen txamorrota perpezioz imintzen, edo Periko Fortuna ebillen saltari, gauzea da txamorrota berriro lurrera joan zala.

– Beste txamarrote bat? Ba dozak bi.

Makurtu eta txamorrota astoaren bizkarrera.

Berotasuna burura igota ekarren. Bide traketza, arri-koskorak ugari, astoa saltari eta txamorrota berriro lurrera.

Beste txamarrote bat? Au dok zafria, au; sekula orrelakorik?

Artun lurretik txamorrota eta Perikoren gañera.

– Iru txamarrote!

Oto'ren etxea baño lenen Errota-txiki etorren eta ara eltzeko zubitxo bat.

Astoak mogimendu asko eta erori da berriro laugarren txamarrotea. Oto, txamarrotea lurrean ikusita, gelditu da aren aurrean tente:

– Beste txamarrote bat? Nik zertarako bear dodaz ainbeste txamarrote...?

Pentza eta egin: artun txamarrotea eta zubitik ibaira.

LABAYRU IZTEGIA (AURKEZPENA)



Gorka Martínez, Adolfo Arejita, Leire Bilbao, Ana Madariaga, Josu Bergara eta Ander Manterola, aurkezpenean.

Bizkaierera ta gaurko jokabideak

Urrengo Euskerazaintza Aldizkarirako dan idazlan baten agertzen dodaz gaur-egun Bizkaierari begira dagozan lau jokabide: Euskaltzaindiarena lenengoa, onek Batua daroa aurrera eta bizkaierera galdu arren be ez leuke negarrik egingo. Bigarrena Labayru'rena: erakunde onek benetan maite dau bizkaierera, baiña atxearen arazoa garrantzi-bageko lez jotzen dau. Irugarrena Mendebalde da eta onek bizkaierera maite dau eta beste arlorik ez dau urratzen eta atxearen arazoan Labayru'ren antzera dabil. Eta laugarrena Euskerazaintza'rena, onek bizkaierera sendotzea dau lenengo elburuetariko bat, beste euskalkiak be bai, eta atxerik ez dau sekula erabilten.

Arazoa argitzeko beste au gaiñeratuko dot: Oraingo idazki au idazteko bidea zabaldu daustana, DEIA egungarian Cesar Ortuzar'ek argitaratu dauan idazlana da eta jakingarriak eta argazkia ortik artzen dodaz, baiña bizkaierari buruz dan idazlan au zergaitik ez da argitaratzen bizkaieraz? Onetzaz gero geiago.

Labayru ta Mendebalde erakundeak gure arduratik naiko ur daukaguz eta guztion artean lan egin bear dogu gure euskalkiak bizia izan dagian eta bizi ugaria izan be.

Lan bikain eta osoa

Labayru'ren iztegi au lan bikain eta osoa dala eta bizkaieraren izen ona ugaritzeko egokia dala irakurri dogu. Eta gaiñera itz bakoitxak dauzan erabilkerak eta adierazpide ez bardiñak aztertzen dauzala. Gauza arduragarria benetan, ba-daukat iztegi ori eskuratzeko gogo bizia!

Adolfo Arejita izan da lanaren bateratzaille. Antxiñatik eta zio askogaitik ezagutzen dot Adolfo eta bene-

tan ikasgarria izan zan jozkereari buruz idatzi eban liburu ederra. Joskera-lan orren jarraipena dala iztegi au diño izparlariak.

Ander Manerola'gaz eta Adolfo'gaz batera izan ziran aurkezpenean Josu Bergara Aldun Nagusia, Ana Madariaga Aldundian kultur-arloko arduradun dana, Jaurlaritzako Lorea Bilbao, bbk'ko Gorka Martínez eta beste asko.

Itzen adierazpena, kasu bakoitxean dala mundu zabal eta, sarritan, eskuratu-eziña, argi agertzen da. Eta mundu zabal eta sakon onetara sartu ei da Labayru 900 orrialdeko liburu mardul onetan, eta oraingoz euskera-gaztelera baiño izan ez arren, laster agertuko dala

beste bat, gaztelera-euskera. Baiña gaurko au lan osoa da.

“Gitxiagotasunaren konplexua”

Berba onekaz agertu dau Ander Manterola adiski-deak, argi eta labur, euskaldun bizkaitarren gaurko egoerea: Beti uste izaten dogu besteen euskerea dala ona eta gurea ez ain ona.

Baiña nondik etorri da konplexu ori?

Antxiñako gauzea da, baiña zelan ez da aundiagotuko gure aldi onetan? Izparringietan ez dabe bizkaieraz ezer idazten, irratian be ez bizkai-irratian izan ezin, ETB'n be ez, naizta iparraldekoentzat “orena” ekiñaldia izan, liburu gitxi argitaratzen doguz bizkaieraz eta aldizkarietan gure “ZER” au dogu bakarra. Batus dabilzala esaten dabenak, berbaz danean, gipuzkoera edo antzeko izkuntza darabille. Jakin ete lei gure bizkaierari zergaitik jakon gorroto ori? Ez gara gitxienez euskaldunik erdiak bizkaieraz berba egiten dogunak? Zergaitik etxeko euskereaz ikastolara doazen umeai, lenengo egunetik asita, batus berba egiten jake, etxera eltzen diranan aitari ta amari edo aitita ta amamari olako berbak esateko: Ori orrelan ez da esaten. Zuk ez dakizu euskeraz itz egiten?

Ori orrelan izanik, “konplexua” nondik datorren ez badakigu be, bai, ba-dakigu zelan aundiagoa biurtzen dan.

Zoriona Labayru'ri eta iztegiaren egilleai! Erabiliko dogu!

OLAZAR'tar Martin'ek

ASKATASUNA

Faraonen menpetik ta egitura zapaltzailleetatik askatu ziran ta anaitasun egiunea Jaungoikoaren aurrean egin eben. Baiña gizona gizon, ta bere asmoetan jarraitzen eban, guztia ez egoan oraindiño osotuta. Gitxi gora-bera bakoitzak bere antzera ta naitara jarraitzen eban, norberekoi, bildurti ta jainko-izun-zale. Jaungoikoaren agintzariak ezin zituen, ezelan be, onartu. Beste giza griñak geiago egiten eutsen ta euren goi-indarrak illunduta ta makalduta geratzen jakezan.

Baietz esan arren be, guk zure esana egingo dogu, txerrenen edo besteren baten indarrak geiago egiten eutsen. Gosealdiak eldukeran, batzuk euren elburua galduta, nora ezean geratzen ziran. Ta bereala atzerantz begiratuten eben, anaiak gogaituta izten zituelarik, Moises'en ta Aaron'en aurka Israeldarrak auxe esaten eben: "Obe genduan Jaunaren eskuz Ejiptoko lurraldean il ba-gintzaz, lapikoa bete okelaren aurrean jesarten gintzazanean. Erri guztia, emen, gosez ilteko ekarri gaituzue basamortu ontara".

Ejiptoko okela azur lapikoaren gose-mina sentitzen eben euren joputza arnari bakarria. Jopuen bakea naiago eben, anaitasuna lortzeko egin bear zan burrukaren arriskua baiño. Betiko soñua... au zan Israeldar gizajo arein kontua.

Moises'ek eurengandik alde ta Sinai mendian egun batzuk igaro orduko, garaitzaren uste osoa galtzen eben. Gidariak eurengandik alde orduko, Jaungoikoagaz egindako anaitasun egiunea amaitu zala uste eben. Jaungoikoaren esan guztiak egingo doguz gaur, ta biar edo etzi zer itz emon ebenik be ez, dana astuta, egin bear eben bideari arpegi emetoko ausartasun barik.

Moises'ek luzatu egiten eban menditik jatsitea ta orduan, Aaron'i eskatu eutsen: "Egiguzu Jainko bat, gure aurrean joan daiten, izan be, ez dakigu Ejiptotik atera ginduzan Moises orri zen jaso jakon". Aaron'ek erantzun eutsen: "Zuen emazte, senar ta alabei urrezko belarritakoak kendu ta ekarri egidazuez".

Alan egin eben. Guztiak euren balarritakoak kendu ta Aaron'i ekarri eutsen. Ta onek sutara bota ondoren urrezko txal batek urten eban. Areik orduan, auxe esan eben: "Auxe da, Israel zure Jaungokoa Ejiptoko lurraldetik atera zaituana".

Aaron'ek ori ikusirik, aldara bat egin eban txalaren aurrean, a auxe iragarri eban: "Biar Jaunaren jaia da". Biarmonian goizean goiz jagirik, erre-opariak eskeini ebezan, ta bazkari aundi bat eginik, dantzarako, gogotsu, jaiki ziran. Itzik egin ez eta ezer eskatzen ez daben Jaungoikoa nai eben. Olan, euren nai izateak errezago egingo zituen. Ta anaitasuneko lurrera eltzeko, bide luzean egin bear zan buru ukatzeagaz gogaitu egin ziran. Janari ta urik eza-gaitik, gora goraka, jaiki ziran ta Moises berbera Israeldarren buru-gogorkeriagaz gogaitu egiten da.

Errian zuzendariak eurak be eragote ta matxiotan dabilbaz. Ta orrez gaiñera erritar batzuk Moisesen aurka jaiki ziran.

Baiña oroz goitik, erritar jendearen artean, Jaungoikoaren agintzariak sinistu ez dituen bildurti asko dagoz.

Eurak baiño gogorragoa zan etsaiagazko burrukan sortzen ziran gaiztasunen aurrean, bildurtiak, atzerantz egiteko eskatzen dabe. Ta Ejipto edo jopu errira, atzera, biurtzeko jendea, gora gora, ipini dabe. Zn, I4. Ta onetariko jendeari Jaungoikoak ez eutsen emongo agindutako lurrera sartzeko erarik.

Erriaren jokera onek agertzen dabenez, oraindik ez egozen agindutako lurrean sartzeko eran gertaturik. Jopu-bizitzan, larregian, oituta egozen gizon aren biotza aldatu egin bear zan. Onbideak ta onbidearen nekeak bildurtu egiten zituen ta aginduriko lurraren aurrean oiez-lako agintza emon eutsen zintzo jokatzen ibili ziran lagun guztiak, basamortura sartzea. Zn, I4, 2I-25.

Ainbeste urtean arturiko jopu-aoituretatik urteteko berrogei urteko irakatsi sakonak bearko ditue. Naita joputza mingarria izan laureun urteren buruan zapalketa orrek zerbitu ezarrita itzi eutsen ta ortik urtetea be ez zan berezko lana. Aitaren lurrean sartu al izateko, aren semeak bakarrik egongo dira gerturik... Zn, I4,26-38.

Basamortuan berrogei urtean bizi izateak, antxiña, jopuen bidez eratuta egoan erri onek, egin bear izan zituan antolatze, lege-zuzentza ta il edo biziko alegiñak gogoan artu eragin nai daukuz.

SOLOZABAL'dar Paulin

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

MADALEN

Zelai onetan ospatu dogu
Madalenaren etxean
egitekorik nagusia
Euskalerra ederrean,
bizi Jaubeak agindu euskun
maite giro onenean,
ospatu, gogoz, nere bizia
zuen alkartasunean.

Gaurko eguna, egiz, da eder
gutziz gogoangarria,
bere sustraia parkamena da
nekien aringarria,
samintasunak kendu eutsazan
itzirik garbi garbia,
lorpean egon emakumeak
urrez jantzi dau bizia.

Jesus maitia zerutik dator
ongi-naiez apaindurik,
ez dau nai zigor ez makillarik
semerik ondatzekorik,
maitasun utsa eskeini dautso
Madalenari bizirik,
zerutar urrez eta eskarrez
goitik beraiño jantzirik.

ADISKIDE NAGUSI

Egun on baten alkatu gara
geure Aitaren etxean,
gure barneko sinismen garrak
deituta Aitarenean,
egi egitan esan bear dot
danok gagoz poz batean,
egi obarik ez da izango,
iñoiz, gure biotzean.

Egille Bera, emen, daukagu
anai arreben pozetan,
ixil ixilik, bagira dago
maitasun gozonenetan,
entzun maiteok, dirausku berak
kristauen etxe onetan,
ementxe, nago, beti, zuekin
alkartasun onenetan.

Zuek zarie nire maiteak
ontasunez indarturik,
sinismen garra ondu daitela
biotz barruan suturik,
ondoren dator anaitasuna
zeruko argiz jantzirik,
ate nausia zabaltzen daben
urre-giltza eskeinirik.

Paulin

LAMIÑAK

Lamiñak zer diran ba-dakigu, baiña aztertu daigun
onein jatorria.

Euskaldunak itz ta gaia erromatarrakantik etorria
dogu, baiña oneik elendarrakandik artu eben.

Antxiñako idazleen artean lamia itxasoko jainko-
emea da, K.a. 632n. urtean Scila lez aitatzen da lenen-
goz, Scila'ren alabea da, Euripides'ek (K.a. 480)
Libia'tik etorria dala diño, beste batzuk errege-etxekoa
dala diño, esaterako Aristofanes'ek, eta mamu-tzar
itxurakoa da, panpiroen girokoa.

Izeka-liburuetan agertzen da Lamia eta umeen are-
ria da.

Aristófanek (K.a. 427) Lamia itxusia ta gorroto-
garria dala diño. Zeus'egaz maitemindu zala eta izaerea
aldatzeko eskubidea emon eutson onek eta usain txar-
reko pistitzar lez agertzen da, umeak ilten da zalea.

Pausanias'ek (180) eta Plutarko'ko (50) begiak
kendu eta ipiñi egiteko almena emoten dautsoe.

Geroago idazle askok aitatzen dabez lamiak, Hora-
ti'k be bai. Tertuliano be bai. Biblia'n be Isaias'ek aita-
tzen dau guzurrezko jainkoen artean (39,14) Lilit lez.

Lamiñai buruz liburuak idatzi ziran XVI eta XVII
gizaldietan. Gero sorgin lez agertzen dira.

Euskaldunen artean ezagunak dira iparraldean naiz
Egoaldean. Erreketan dabilte eta leku askotan agertzen
dira lamin-iturriak, Lamindano, Lamiako, zubiak egi-
ten be badakie, Laminarrieta toki-izen zabala da, eta
Azkie'k izen oneik gogoratzen dauz: Labiano (Lamia-
no), Lamiaran, Lamikiz, Laminazulo, Laminapozu...

Leku batzutan erdi andra erdi-arrain dira. Gizon
batek orrazia ostu eutsen eta gabeen leioa jo eta esan
eutsoen: "Peru Maralako miru eratsia, ekazu orrazia
edo kenduko dautzuk kortako ganadua edo azkazia".

Lamiak sorgiñakaz eta Mari'gaz zer-ikusia dauke.

Olazar'tar Martín'ek

ELKANO'TAR JUAN SEBASTIAN

Itxas-gizon euskaldunen artean ospetsuena, zalantza barik, Elkano dogu.

Getaria'n jaio zan 1487n. urtean eta umea zala galdu eban bere aita. Amak, Katalina del Puerto zan beronen izena, benetako alegiñak egin bear izan ebazan bere bederatzzi seme-alabak aurrera aterateko.

Asieran gure Elkano ez zan besterik 200 toneleko ontzi baten jabe baiño eta ontzi orregaz ibillaldi asko egin ebazan esaterako Cisneros kardinalak Oran eskuratu ebanean an egoan eta Italia'ra be lagundu eutson Gran Capitan ospetsuari bere gudaldietan.

Aldi aretan ez egozan argi España ta Portugal'en arteko mugak, batez be euren oiñak gureen aurka daukazen Molukas-inguruetan.

1518n. urteko martiaren 22n. egunean egin zan Magallanes eta V Karlos'en arteko ituna eta Magallanes'ek artu eban itxas-ontzi guztien burutza eta dana ondo eratzeke Bizkai'ra bialdu eutsan dirua Artieta kapitaiari eta onek lan aundia egin eban euskaldunen itxas-ertzean. Magallanes'en ontzidia bost ontzi ziran: Trinidad, Bilbao'n eresia eta Magallanes buru ebana, San Antonio; Concepción Elkano kapitai-orde ebana; Santiago ta Victoria. Azkenengo au izan zan biurtu zan bakarra.

265 ziran itxas-gizonak eta euren artean oneik euskaldunak: Urrutia'ko Txomin lekeitiarra, Olarte'ko Sebastian bilbaotarra, Laredo'ko Pedro Portugaleta'koa, Lope de Ugarte, Juan de Segura (Segura'koa) Iruña'ko Lorentzo (giputza) Agirre'ko Juan bermeotarra, Elorriaga'ko Juan debatarra, Agirre'ko Martin, Irun'go Juan, Mugartegi'ko Pedro bermeotarra, Juaniko Somorrostrokoa, Intxaurraga'ko Martin bermeotarra, Arratia'ko Juan bilbaotarra, Tolosa'ko Pedro, Orue'ko Juan mungiarra, Basozabal'go Pedro mungiarra (au ez zan joan gaisotu egin zalako), Nabarro'tar Juan iruñatarra, Otxoa bilbotarra, Ikaza'ko Domingo debatarra, Sauntua'ko Pedro bermeotarra, Garate'ko Martin debatarra, Mentxaka'ko Juan bilbaotarra, Txindurtza'tar Pedro bermeotarra, Ezpeleta'ko Leon eskribaua, Peralta'ko Diego naparra, Olabarrieta'ko Pedro bizargin galdakarra, Barrena'ko Martin ordiziarra Lope Nabarro muskariarra.

Sanlúcar de Barrameda'tik urten zan ontzidia 1519n. urteko irailaren 20n. egunean. Andik Tenerife'ra eta gero Brasil'era erregaia artzeke eta itxas-ertzari jarraituz ibai aundi batera eldu ziran, La Plata ibaia zan. Andik mundu barri batera elduko zirala uste eban, baiña ez zan olakorik eta bost ontziak egoalderantza egin eban, iñok ikusi bako lurra ikusteko ustez.

Lurralde areitan negua zan eta berezko portu on bat aurkitu eban. Oneri eguneko santuraren izena ezarri eutsoen: San Julian.

Magallanes agintari gogorra zan eta antxe sortu zan lenengo matxinadea: Bi baiño ez ziran agertu Portugal'dar orren alde, Balderrama kapellaua eta Elorriaga'ko Juan giputza. Elgorriaga aitzoz il eban eta Elkano'k artu eban bere ontzia, berau be matxinadan sartuta egoana. Baiña matxin-zaleak ez eban alkar ondo artzen eta nagusi jarraitu eban Magallanes'ek: Matxin-buruak guztiak il ebazan eta 40 gizon eriotzara epaitu. Onei parkatu egin jaken lanerako besoak bear ziralako.

1520n. urteko dagonillaren 21n. egunean urten eban San Julian orretatik eta Patagonia'ra eldu ziran (izen au Magallanes'ek ezarri eutsen ankaluzeak ziralako ango biztanleak). Urrilaren azkeneko eldu ziran Magallanes itxas-adarrera eta Deunoro ipiñi eutsoen izena, baiña Magallanes'en itxas-estua esaten jako.

Batzuk andik etxera biurtzea nai eban, baiña Magallanes ez egoan orretarako, eta San Antonio ontzikoak iges egin eban.

Itxas-estuak itxas-ertz arritsuak eukazan, urak be sakonak eta mendietan sutzar aundiak ikusten ziran. Orregaitik ipiñi eutsoen Sullur edo "Tierra de Fuego" izena. Illebetegia eban itxas-estua ikusten eta azaroan eldu ziran egoaldeko itxasoetara edo Itxaso Bare'ra.

Martiaren 26'tik laster eldu ziran Filipeñetara eta izen ori ezarri eutsoen Felipe erregearen omenez.

Basamortua zan lurralde batera sartu ziran eta zortzi egun egin ebazan an eta bertako inditarrak adiskidetu be bai. Apirillaren 7n. egunean eldu ziran Cebu'ra. Magallanes inditarrak eztabaidan asi zan eta il egin eban 27n. egunean.

Nor jarri agintari? Duarte eta Serrano, biak batera. Concepción ontzia erre egin bear izan eban eta emen agintari zan Elkano Victoria'ra aldatu zan.

1921n. urteko uztailean eldu ziran Borneo'ra eta emen aundikiro artu ebazan, baiña bildurak eraginda aurak burrukea asi eban. Euretari bost il ziran eta emen galdu zan Urrutia'ko Domingo lekeitiarra.

Espinosa'ko Gomez aukeratu eban Trinidad ontziko buru eta Elkano Victoria'ko buru: Emen asten da getariarra jazokizun guztiak idazten.

Azaroaren 7n. egunean eldu ziran Moluko'ra eta 8n. ean ondo artu ebazan Almanzor errege musulmanak. Urte batzuk lenago eldu ziran ara arabiarak.

Eurak eroienaren truke espeziak artu ebazan. Victoria'k ekarri ebazan espeziak naikoa ziran ibillaldi osoa ordaintzeko eta irabazia lortzeko.

Portugal'darrak jakin eban andik dabilzala eta guda-ontziak bialdu ebazan eta eurak bizkortu egin ziran jarraitzeko. Trinidad ontziak ezbeara izan eban eta an geratu zan eta gero Portugal'darrak aurkitu eban. Elkano bildur zan ezpeziak astunegiak ete ziran ontziak jarraitzeko eta arindu egin eban ontzia: 54 itxas-gizonek an geratzea erabagi eban, egiteko egoan bide luzeak bildurtuta.

Urtearen azkenekoa urten eban Elkano'k eta 1522n. urteko zezeillean eldu ziren Indiko itxasora.

Bidean gose aundia sortu jaken luraren garrakoa igaroten egozala eta 22 itxas-gizon il jakezan.

Bagillaren 9n. egunean eldu ziran Itxas-mustur orlegi edo Kabo Berde'ra eta euren gosea ez zan makala, eta janaria eskatu ebanean Ameriketatik etozala esan eban, baiña euretari batek salatu eban guzurra eta ezer emon barik Portugal'eko lau itxas-ontzi etorri ziran euren aurka. Ordurako urtenda egozan, baiña lurrean egozan 13 itxas-gizonak baitu egin ebazan.

1522n. urteko irailaren 6n. egunean urten zan Victoria ontziara ura sartzen jakola. Elkano Sanlúcar de Barrameda'n lurreratu zan, urten ebanetik iru urte baiño iru illebetegia gitxiago igaro ondoren. 18 ziran ara eldutako itxas-gizon aulduak.

Irailaren 6n. egunean Elkano'k eskutitza egin eutson Enperadoreari etorreraren barria emoteko. Enperadorea arritu egin zan, San Antonio ontzikoak etorri ziranetik guztiak ilda egozala uste ebalako. Elkano'gaz alkar-izketa eskatu eban eta ikurdia emon eutson, inguran "Primus circundedisti me" idazkia ebal. Bizitza guztirako saria emon eutson eta berak Santiago'ren ordenako jantzia eskatu eutson baiña ez eban lortu.

OLAZAR'tar Martin'ek

SORGIÑAK EUSKALERRIAN

Zer diran eta zer egiten daben

Sorgiña zer dan guztiok dakigu baiña ez da ain erreza labur-labur esatea.

Bizitzako zeregiñetarako mundukoak ez diran almenak daukezela uste daben andrazkoak naiz gizonezkoak dirala esango geunke.

Itzaren jatorriari begiratzan ba'dautsagu,zozketa egiten dauana esan nai dau, "sortea" egiten dauana.

Zer egiten daben

Sorgiñak gauza asko egiten dabez, baiña sorgin lez egiten dabezenak, munduko almenak ezin egin daitekezenak izan bear dabe.

Gogoratu daiguzan batzuk:

- Taldeetan alkartuta dagoz.
- Odei guztien azpitik eta sasi guztien gaiñetik aidean ibiltzen dira.
- Egun izentatueta batzarrak egiten dabez, esaterako iretargi barrian.
- Batzarretan txarkeriak egiten dabez
- Ekaitzak eta kalteak ekarten dabez ,batez be etxe ta soloetara.
- Umeai eta gizonai gaisoak ekarten datsez.
- Pizti-antza artzen dabe.
- Begizkoarena ezarten dabe.
- Gaiso batzuk osatzen dabez igortziagaz eta otoitzakaz.
- Azur apurtuak eta alboratuak osatzen dabez:Zan-tirituarenagaz.
- Txerrenagaz zer-ikusia ei dauke eta gurtu be egiten dabe.
- Meza baltza egiten dabela be iñoz esan da.

Edestia

Sorginez ezaupidea antxiñakoa da Euskalerrria'n, fedea emen zabaldu baiño lenagokoa, baiña erdiaroa ezker dagoz jakingarri bereziak. Gogoratu Aimerik Pikaud'en illargi barri gaueko dantzak.

Erdiaroan siniste aundia egoan sorgiñai buruz, baiña aidean ibiltea eta beste gauza asko txerrenak euren irudimeanean sartutako gauzak dirala uste eben askok, ez benetan jazon diran gauzak.

1521n.urtean il zan Martin de Arles Iruña'ko kalonjea eta jainko-iztilari ona eta gai oneri buruz orduan asko zabaldu zan liburu bat idatzi eban eta Euskalerrrian sorgin asko egoala diño. Eta txerrenaren laguntzaz joaten dirala leku batetik beste batera, eta gabetan akelarreak egiten ebezala, jentetza aundiak batuta,umeak amaren besoetatik kenduta eroaten dabez, eta erre eta gero jan egiten dabezela,etxeetara leioetatik eta ke-zulotik sartzen dirala bildurra ezarriaz. Berak ori dana irudimen utsa dala diño, baiña erri-gizon eta eleiz-gizon askok ori sinistu egiten eben.

Kalonje ori il eta laster asi ziran sorgiñen aurkako jokatibideak,batez be Naparroa'n, Logroño'tik eragiña etorrela. Lenengoan auzibide aundi bat sortu zan baiña gero inkisiziñoak berak baretu eban.

Florentzio Idoate' k idatzi eban jazokizunen edesti luze bat eta oneri jarraituko dautsagu:

Ituren'en

1525n.urtean zan, erriko eta inguruteako ainbat izan ziran batzar batera deituak eta egoera larria zala eta sorgiñak ziralakoen entzutea eukenak ekarteko agindu eutsen eta arlo orretan jakituna zan Izaroz'ko Graziana'k esango eban nortzuk ziran sorgiñak eta nortzuk ez, euren ezkerreko begietara begiratuaz beste barik: Amar andra eta gizon bi izan ziran sorgin lez artuak. Beste askoren artean nastau ebezan eta barriro eskatu Graziana'ri zeintzuk diran esateko.

Amar artu ebazan lengoak eta bigaz eukan zalantza. Guztiak egiten ebezan sapoakaz igortzeko unguentuak, umeen odola ta biotza nastera sartuta, Mendaurre'ra joaten ziran akelarreetara eta an txerrenak ogia eta arda emoten eutsezan eta dantza baragarriak egin goizaldian oillarrak jo arte eta gero,gorputza unguentuz igortzi eta aidean etxeratzan ziran. Baiña gauza guzti oneik autortzeko,oiñaze ikaragarriak ezarri eutsezan eta dana zalantzapean geratu zan azkenean.

Burgete'n

1525n. urtean antzeko zerbait egin eben Balkarlos, Orreaga eta Burgete'n baiña ondorenak ez ziran izan bardiñak.

Balantza baimenduna izan zan burua eta lau andra eta gizon batzuk baitu ebazan eta Zaldaiz'en eta Billaba' n egiten ebezala akelarreak, gorputza igortzi egiten ebela unguentu bereziakaz eta txerrenaren aginduak eukezala autortu eben. Batek autortu eban bere lagunak zaldi zurietan joaten ikusi ebazala eta abesten joaten zirala esan eban,baiña ori dana baiezteko ez egoan beste ezer Erro'ko Juana'ren etxean aurkitu eben romerozko pote bat beterik baiño.

Dana dala,Balantza epailleak andra batzuk erreteko agindua emon eban.

Orain-artean erriko epaitegiak ziran eta erregearen menpean egozan,baiña aurrerantzean inkisiziñoa sartzen da eta bigunagoa da.

Otxagabia'n

1539n.urtean,Otxagabia-inguruan dabiltz aztertzaileak:Lope zan alkatea eta onen aitak be sorgin-entzutea eukan eta erre egin eben Kalagurri'n.Lope alkatea bera be astelen,eguasten eta barikuetan akelarreetara joaten zala iñoen eta batzar orreitan ikusten ei ziran lekaimak,serorak eta santerak be,atsoak eta umeak be bai.Lope'k argi egin eban berba epaitegian baiña Kamus epaillea artega egoan eta Lope erbestera joateko zigorraz zigortu eben.

Burunda ta Arakil'en

1575-1576n. urteetan Burunda-inguruan dabil arazoa eta Urdiain da ardatza eta emen Grazia Martiz izan zan geien salatua: Onen etxe-ondoan amar notin ikusi ei ziran zuriz jantzita, eta ikusle batzuk urreratu ziranean,izara zuri orren gaiñean iges egin ei eben. Eta beste baten etxe orretatik ogei pizti ikusi ebazala urteten esan eban,gaberdian urte ziran txakur,aker, et auntsz orreik eta auzoko andra batek salatu ebazan bere umea il eutsoelako.

Grazia atsoa Iruña'ra eroan eben eta oiñazez berba egin erazo nai izan eben,baiña lagun errukitsu batzuk urten ziran bere alde. Urdiain'go abatak esan eban bere alde oso eleizkoia zala eta epaia izan zan betiko erbesteratua izatea. Eta sei egunen barruan urten-bearra.

Larraun'en

1575n.urtean barriro dagoz epailleak Larraun'en, Uli leizan sorgiñak batzen zirala-ta. Beste Graziana bat agertzen da emen kalteak ezarten,malefizioak egiten,sapoak eta zugeak bitarte dirala, baiña Orrega'ko kalonjeak urten ziran euren alde. Eta Graziana sukaldari ona zala eta erregeentzat janariak be gertatzen ebazala esan eben. Dana dala, Graziana erbestera bialdu eben eta besteak askatu.

Urte beratan salakuntza egin eban Ziaurriz'ko abatak eta andra baten madarikapena ezarri eutsela illobari esan eban eta sorgiñak santuen irudiai txua botaten eutsela. Ume ondo ikasi batzuk be esan eben egia zala eta oiñazetua izan zan gizon batek agertu eban aker bateri atzean bakea emoten eutsola,baiña onen emazteak ezetz esan eban.

Mari Juana izan zan emen salatua, berrogeta amar urteko neskazarra, eta Urdax'eko abade batek txarto bateatuta egoala esan ebalako, barriro bateatu eben,baiña alperrik,bardin jarraitu eban.Aginaga'ko abatak txerren-kentzeko oikunea egin eutson,baiña alperrik. Mari Juana 'k argi esan eban Txerrenak eroaten ebala bera akelarreetara. Gero Iruña'ra eroan eta oiñazeak ezarri eutsoezan. Larramendi'k jokatu eban bere alde eta agerpenak alkarren aurka egozala eta umeenak ames utsak zirala agertu eban eta txerrena bera be batzuren ustez aragizko gizona zala eta beste batzuren ustez egurrezkoa eta txakurra eta katua zala esan eban,batek ogei batzen zirala esan ebala eta beste batek millak batzen zirala... Dana dala, Mari Juana ta Mikel Zubiri eriotzara epaituak izan ziran.

Araiz-ibarrean:

1595n.urtean Araiz'ko betirako alkatea zan Lodosa'ko Fermin,eta sorgin-arloan billaketa egin eban: Maria Migel Oresa zan sorgiña eta umea zala bere amomak emon eutsola sorgiña izateko ardurea esan eban eta bete egiten dauala. Dantza ederrak egiten dabez kamisa utsez jantzita, egaz eltzen ziran ibar batera eta erdian adar biko gizon bat bere bikote-lagunagaz agertzen zan, gero leiza baten gurtzen eben bikote ori, eta gaua sorgin-dantzan igaro ondoren, oillarrak jotzen ebanerako etxeratzen ziran.

Oresa andreak bere agerpena egin-ondoren beste lekuko asko etorri ziran,bere lagunak, Arriba ta Errazkin' eko abatak, eskribau bat,abadegai bat eta askoren izenak salatu ebazan. Iruña'ko espetexeak sorgiñen lagunez bete ebazan.

Kaparroso baimenduna joan zan ara arazoa aztertzeko eta amar egun igaro ebazan itaunak egiten. Nabarmenkeri aundiagoak agertu ziran eta ainbat espetxean il be bai.

Inguruko bost erriak batu ziran Batzarresagasti etxean eta errudunak guztiak zigortzeko eta ingurua garbitzeko eskatu eben. Zortzi il ziran euren erruak autortuta eta josulagun batek lagunduta.

Alkateak bere almena oker erabilli ebala agertu zan,baiña gizon beteri berreun zigorkada emon eutsoezan eta gaiñera erbesteratu betirako eta beste bateri eun zigorkada eta erbestera sei urterako eta geratzen zan emakumeak askatasuna lortu eban.

Elgorriaga'n,Goizuetan eta Arraioz'en

1610n.urtean,erri oneitan erritarrak eurak asi ziran sorgiñak ilten.Arrayoz'en 1612n.urtean asarre aundiak egozan sorgikeria dala-ta sendien artean eta andra salatuak torrean itzi ebazan.

XVII gizaldian

1610n.urte-inguruan Naparroa'n garrantzi aundia dauke sorgin-arazoak: Logroño'n Bezerra ta Albarado epailleak ekin eben aldiari eta Iparraldean Lankre epaillea.Oneintzat umeen autorpenak ziran naikoa eta laster asi ziran sorgiñak erreteko sueteak biztuten eta Zugarramurdi agertu zan sorgin-leku ospetsu lez.

Albarado'k artu ebazan Lesaka'n eta Bera'n entzunan.Ikaraz beterik egoan jendeak bete ebazan Logroño'ko espetxeak.

Egin zan epaikundea eta Abadeak eta gotzaiñak eta epai-lariak alkar ulertu-eziñik ikusten dira,Bizkai'ko korrexidorea be agertzen da sorgiñen aurkako salakuntzak sinisten. Baiña apurka-apurka sorgiñak galtzen doaz eta arlo orretan bakea dator Euskalerrri osora.

Olazar'tar Martin'ek

Inkisiziñoa eritxon auzitegiak eukan sorgiñen ardu-rea eta 1570n. urtean Kalaorra'n eukan bere etxea. Auzitegi onen menpean lurralde zabala egoan: Naparroa, Euskalerrria, Burgos'ko iparraldea, Soriazati bat, Errioxa ta Kantabria. Bitarikoak ziran arduradunak, Auzitegian batzuk eta erririk erri beste batzuk errudunen billa. Kalaorra'tik eta Logroño'tik etortzen ziran ba gure billatzailleak eta gauza bigaz egozan arduratuta: Emendik ebiltzazan protestanteakaz eta sorgiñakaz eta XVIII gizaldian arduratu ziran enziklopediadunakaz.

Zugarramurdi'n arapatu eben sorgin-talde bat eta 1611. urtean arduratu ziran epaikariak. Orduan Europa osoa egoan sorginkeriz nastatuta.

Zugarramurdi'koa gauza aundia izan zan: akelarreak egiten ebazan, umeak eta gazteak nastean, sasien gaiñetik egaz, pozoiak, igortziteak, txerrenaren ordeko piztiak, esaterako sapoak, gorpuak lurpetik aterateak eta jateak, seksu-jokoak, Txerrenagaz artu-emonak...

1570n. urtean erre ebazan ogeta amar napar eta Zugarramurdi'n zazpi.

Europa osoan asko erre ebazan XVI-XVII gizaldietan, naizta inkisiziñorik egon ez.

LEGE ZARRA

Nire asmoa

Bizkai´tarrok bear-bearreko gauzea dogu ainbeste aita-tzen dan Lege Zarra zer dan eta beronek zer agintzen dauan jakitea.

Orregaitik bururatu jat gure Aldizkarian Lege zarra´ren 36 atalak agintzen dabena agertzea.

Lenengo ta bein,Lege Zarra esan dot,eta ez lege zarrak. Lege Zarra buru-jabetza da,bear diran lege guztiak egiteko almena,eta ortik datoz,gero,lege zarrak.

Lege zarrak Bizkai´ko errietatik alkartutako almenu-nak egiten ebezan eta batzar au geienetan Gernika´ko arizpean (so el arbol) egiten zan eta batzar orretarako deia asieran mendietan sua biztuta eta adarra jota egiten zan.Geroago asi ziran dei ori idazkiz egiten. Mendi oneik ziran forudunak: Sollube, Bizkargi,Oiz,Ganekogorta Gor-beia ta Koltiza .

Lege idatzia

Lege Zarra asieran oiturak baiño ez ziran. Ez dakigu zein gizalditan asi ziran olako batzarrak egiten, baiña izan leiteke VIII gizaldi inguruan.Gero lege idatzi biurtu ziran eta azkenez liburu idatzietan agertu.

Lege Zar idatziak bi dira,bata zarra eta bestea barria.Emen Lege Zar barria artzen dogu, II Felipe Erre-gearen baimenagaz 1642n. urtean argitaratua.

Izkuntza

Guk euskeraz idazteko oitura gitxi izan dogu eta gure Lege Zar au be erderaz,gazteleraz idatzi zan eta ez jako iñori bururatu euskeratzea arik eta Bizkai-ko euskerea eukan arabar batek, Olaeta-ko semea zan Puxana-tar Pedro-k euskeratu arte,eta ori egin eban 1981n. urtean

Geiago bagerik asi gaitez an I atalak dakarrena agertzen.

LEGE ZARRA (1): BIZKAIA´REN LEGE BEREZIAK

I legea:Jaunak zin eginbearra

Bizkai´ko Jaunak Jaurerria bereganatzen dauanean zin egitera etorri bear dau.

Batzarkideak lenengo esan eben bizkaitarrak lege bereziz eta foruz eta usadioz eta oituraz ebela Bizkai´ko jaun bakoitxak,naiz aurreko jauna illik dala naiz beste edozein bideren batez, jaunerrian jaraipena eskuratzean, adíñez amalau urtekoa ba´da,Bizkai´ra berbera etorrita bere ziñak eta agintzak barriztau egin bear dauzala.

Urte barruan etorriko ez ba´litz,bizkaitarrak ez dagioe-la erantzun eta agindurik bialtzen ba´dau, men egin dagioela baiña ez bete.

Amalau urte baiño gazteagoa balitz, bere kortea dan lekuan berak eta bere arduradunak egin dagiela ziña eta

gero amalau urte beteten dituanean etorri daitela zin egitera.

II legea: Non eta zertaz egin bear dauan zin

Baita esan eben: Jaunak Bilbao uri aundiko ateetan zin egin bear ebela bertoko uriak eta erriak eta onein legeak eta notiñak gordeko dituala.Andik Larrabetzu´ko San Eme-terio ta san Zeledonio´ren eleizara joango da eta abadeak gure Jauna eskuetan dauala jaunak zin egingo dau.

Andik Gernika´rantz doala Aretxabala gaiñean artuko dabe bizkaitarrak eta eskuan mun egingo dautsoe euren Jaun eta errege dalako eta Gernika´ra etorririk, Zugaz-pean,Bizkai´ko batzarrak egiten diran lekuan, zin egingo dau.

Andik Bermeo´ra joango da eta uri aretako Santa Eufemia´n abadeak eleiz jantziz jantzita dirala,Kristo´ren Gorputza eskuetan dabela, eta bere askua altara gaiñean dauala,zin egingo dau.

III legea: Jauna Zin egitera etorri arte,arduradunak jarraitu

Baita esan eben: Esandako ziña ta onartzea egitera Jauna etorri arte Korrexidoreak eta beste arduradunak euren karguetan iraun dagiela,arik eta jauna zin egitera etorri eta karguak kendu arte.

IV legea: Jaunaren sariak eta errentak baiño ez ordaindu

Baita esan eben: Bizkai´ko jaunak etxe ta baserri batzutatik urte saria artzen dabela eta ola bakoitzetik bur-din kintal bakoitxeko amasei diru zar. Eta monastegietatik be bai. Eta beste eskabiderik ez dabela iñoz euki,ortik kanpora Bizkaitarrak beti izan dira zerbageko eta orain be ba dira emen zein kanpoan.

V legea: Noz gudaritzara joan bear eta noz ordaiña emonbearra

Baita esan eben: Bizkai´ko Jaunak soldadutzara dei egiten ebanean beti joan dirala bizkaitarrak baiña Lujaon-do´ko zugatz maillatura arte baiño ez.

Andik aurrera joateko Jaunak ordaindu egin bear eban aurretiaz,mendiz onantza izan ezkerro ille biko saria eta mendiz arantza izatekotan iru illebetekoa.Orrelan joaten ziran euren jaunai laguntzera edozein lekutara,baiña sari orreik artu bagerik aurrera joateko oiturarik ez dagoala eta eskubide au Bizkai´ko jaunak beti gorde dabela.

VI legea:Lurrak,mesedeak eta karguak semez bertokoai

Baita esan eben: Jaunak Bizkai´ko lur,mesede, monas-tegiak ta karguak semez Bizkai´koai emon bear dautseze-

la eta olakoren bat utsik geratzen danean, Jaurerrikoa dan beste bateri emon bear dautsola eta ez beste iñori. Olako ardurak aita ilten danean seme nagusiari emon dagiozala eta seme nagusirik ez ba'lego, Bizkai'ko edozeñeri.

VII legea: Lege oneri buruz errege txartela, zedula

Emen agiri luze baten erregeak agertzen dau ildakoa-ren seme nagusiari edo au ez dagonean Bizkaiko bateri emongo dautsozala olako "prevenda" k.

VIII legea: Uria egiteko agindua Jaunak zelan emon

Baita esan eben: Mendi, eta erri baso guztiak errienak diran lez, jaunak ezin daikela uririk egin errietako mugen barruan izan ezik, orregaitik uria sortzeko Gernika'ko batzarrak onartu bear ebala eta ori barik Jaunak ezin daikela uririk egin.

IX legea: Bizkaia'n ez da izango almiranterik

Baita esan eben: Bizkaia'n ez dala izango almiranterik, ez ordezkorik, ori ekubidea beti euki dabelako. Eta olakoen deiari erantzutera be ez dagozala beartuta, ez itxaso ez leorrez.

X legea: Etxean saltzeko ta erosteko eskubidea

Baita esan eben: Bizkaitarrak euren etxeetan saldu naiz erosi egin leikeela, antxiñako eskubidea dan lez. naiz euna, naiz burdiñea, naiz beste edozer.

XI legea: erri eskubideen aurkako aginduai, bete ez, men egin

Baita esan eben: Bizkai'ko jaunak Bizkai'ko legeen eta foruen aurka emoneko errege-eskutitzak edo erabagiak ez daitezela bete, baiña men egin bai.

XII legea: Zemairik naiz oiñazerik ezin ezarri iñoz bizkaitarrai

Baita esan eben: Foruz eta oituraz eta frankezaz ebela edozelango lege-austea edo gaiztakeria dala-ta, erriarena naiz batena izan, aundia naiz txikia, bizkaiatarrai ezin dakiokela ezelango oiñazerik ezarri eta zemairik egin be ez. ez Bizkaia'n eta ez beste iñon.

XIII legea: Ez judatarrik eta ez mororik Bizkaia'n

Baita esan eben: Bizkaitar guztiak Aitonon seme jatorri argiko eta odol garbiko dirala eta biurtu-barri dan judatarrik edo morotarrik ez daitekela Bizkaia'n bizi edo egotez egon, eta batzuk inguruetako errietatik etorri daitezkezan ezkerro, Bizkaia'n bizi nai daben etorkiñak euren jatorri garbi-agiria ekarri bearko dabe. Ori egin bearko dabe emen geratzeko ustean etorri eta irurogei egun barruan eta ori egiten ez ba'dabe, sei illebeta igaro ezkerro zigorpera jausi daitezela.

XIV legea: Biurtu-barriak buruz errege-agindua

Au agindua bagerik, Juana erregiñearen erabagia da eta diño: Korrexidoreak edo beronen agindupekoak eta Bizkai'ko batzarrekoak gure fede santura judutar eta morotar batzuk biurtu diran ezkerro, eta inkisiziñoaren bidurrez

nire Gaztela'ko erreñutik Bizkai'ra joaten diran ezkerro, eta ortik niretzat oker batzuk etorri leitekezalako, Bizkaia'k egin daustazan zerbitzioak kontuan artuta, kristiñau egindako judutar edo morotarrik ez daitela sartu Bizkai'ra eta an bertakotu. Eta batzuk bertakotu ba'dira urten dagiela. Nik, Juana erregiñeak eskari ori onartu egiten dot.

XV legea: Arazo berau dala-ta

Baita esan eben: Errege-agindu ori bearrezkoa dan ezkerro, biurtu barriren edo euren ondorengoan batzuk emen bizi izateko errege-mesede ba'dauke, ori bizkaitarrentzat kaltebide aundia dala eta eta oraintxe legez ezarten dabela olakorik ba'lego, men egiñik ez beteteko.

XVI legea: Bizkaitarrak aundiki emendik kanpoan

Baita esan eben: Bizkaia Jaunerri osoan bertokoak diranak agiriko aitonon seme dirala, eta olakoai dagokiezan lege bereziak daukezela, baiña lurralde au txikia dan lez, bizkaitarrak edo euren seme-alabak sarritan kanpoan bizi dirala eta an bertakotu dirala. Eta an zergak ezarten dautsezala emen ordain-bearrik izan ez arren. Eta sarritan gatx egiten jake egiztagarriak aurkeztea, urrin dagozelako, eta zergapean bizi dira. Izatez bizkaitarra edo onen menpekoa danari España'ko edozein lekutan aundikitasuna onartu dakiela.

XVII legea: Meatz-gairik ez daitela atera erbestera

Baita esan eben: Legetzat ezarten ebela, Bizkai'tik meatz-gairik, naiz burdiña naiz galtzairua egiteko iñok ez dagiala atera zigorpean, eta atera dagianak ondasunen erdia galdu dagiala eta erreñu onetatik betiko erbestera-tua izan daitela eta orretarako erabilli dauan itxas-ontzia eta eroiazan salgaiak galdu dagizala eta bere ondasunen irutatik bat emon dagiala jaunerriko bideak konpontzeko. eta bigarren irurena izan daitela salatariarentzat eta irugarrena zuzentasuna egiten dauanarentzat.

XVIII legea: Agiriak eta seillua nok zaindu bear dauzan

Baita esan eben: Idazkiak konderriko agiritegian zainduko dira Garnika'n Antxiñako Andra Maria'ren eleizan eta bir-idatziak korrexidorea dagoan lekuan. Iru giltz izan dagizala kutzak korrexidoreak eta aldunak eukiteko. Bear danean korrexidoreak giltza emongo dau eta ogeta lau orduan emoten ez ba' dau, aldun biak idegiko dabe kutxa.

XIX legea: Bizkaitarrak Bizkaia'n baiño ezin epaitu

Baita esan eben: Bizkaitarrak euren epaille nagusia Balladoliz'en dauken ezkerro, Bizkaitarrik ara ezin izango dabe eroan, Bizkai'ko epaikari nasgusiaren aginduz izan ezik, errua Bizkai'tik kanpoan egiña izan arren be, eta eroango ba'lebez, lenbaitlen Epaikari Nagusiari bialduko jakoz.

XX legea: Bizkai'ko epai-lekuak

Baita esan eben: Bizkaitarrai Balladoliz'ko errege-auzitegian orretarako astean-astean eguena izendatu

dakiela, arazoa luzatu ez daiten, eta onen aurkako erregetxarelak baliogabe geratzen dirala.

LEGE ZARRA (2): EPAIKARIAK ETA ARDURADUNAK, ONEIN SARIAK ETA EPAIKARI AZTERTZAILLEAK

I legea: Zuzentasun-giñak izendatu jaun aundiak

Lenengo esan eben: Zuzentasuna egiten dabenak Jaun aundienak izan daitezela, Bizkai' ko jaun eta errege diralako eta Korrexidorea, Ikuslaria, prestamerua eta Alkate ta Merinoak eurak izendatuko dabez, ez beste iñok.

II legea: Nor korrexidore eta ordezkari eta epaille

Baita esan eben: Jaun Aundiak Korrexidore eta ikuslari bat izendatu dagizala eta au letraduna izan daitela, jatorriz aitonen semea ta odol garbikoa. Eta Korrexidore onek Gernika'n egongo dan Ordezkari Nagusia izendatuko dau, beste bat Enkartaldean eta beste bat Durangoaldean eta leku guztietan Korrexidoreak makillea eroan eta epaiketak egiteko eskubidea izango dau.

III legea: Foru-alkateak

Baita esan eben: Jaun aundiak ipiñitako bost foru-alkate izan datezela epaitzeko eskubideagaz merindade oneitan: Zornotza'koan eta Busturi-aldean, iru alkate Uribein, Arratia ta Bedia'ko merindadeetan alkate bat. Ondasundunak eta zintzoak izan daitezela eta euren merindadeetan bizi, eta Uribe, Arratia ta Bedia'ko alkate biak ezin izango dabe beste merin-aldietan epaitu. Bardin Zornotza ta Busturi' ko alkateak euren merin-aldeetan.

IV legea: Leorreko alkateak.

Baita esan eben: Uribe, Arratia ta Zornotza'ko merin-aldeetan eta besteetan leorreko alkate batzuk ba-dirala eta oneik berrogeita zortzi marai artzeko eskubidea daukela eta diru orrein neurriraiño epaitzeko eskubidea izango dabe, ez geiago.

V legea: Oleak eta onein eskubideak

Baita esan eben: Oletako alkateak Bizkaia'n ba-dirala ete errementarien edo besolangilleen arazoak epaitzen dabezela ola orreitan baiña sarritan arlo orretatik urtenda, beste arazo batzutan agintea erabilten dabela eta okerrago dana, zuzentasun-makillea be erabilten dabela, ori errege-eskubideen kalterako dala,

Orregaitik legetzat ezarten dabela alkate oneik ez dagiela zuzentasun-makillarik erabilli eta ez agindurik emon be, olak eta oletako arazoak epaitzeko eskubidea izan baiño, eta oletatik kanpoko arazoa epaitzen dabenan, ogei karga ikatz eta ogeta amar kintal meatzgairaiño zigorra izan leikee, errege-aginpidea eurakandu dabelako. Eta urte oro alkateak aldatu daitezela.

VI legea: Prestamerua eta onen ordezkaria

Baita esan eben: Prestameru-izena daroenak Bizkaia'n asko dirala eta ortik kalte asko etorten dirala.

Orregaitik bearrezkoa da prestamerua ezagutzea. Busturi, Uribe, Zornotza ta Arratia ta Markiña-aldeko merin-aldeetan ordezkari bat baiño ez da izango eta Durango'ko merinaldean beste bat. Leku-ordezkari ori ondasunduna, zintzoa eta Bizkaia konderritik kanpoko, Ebroz-andikoa, izan daitela, eta ez semez Bizkai'koa. Eta Gernika'ko Batzarrean prestameru lez onartua eta dagokion saria eskuratuko dau, eta ordezkaria be izendatu lei, baiña makillarik erabilli barik. Ostantzean bere sari guztiak galduko dituan zigorra izango dau eta diru ori bideak konpontzeko izango da. Eta makilla ba'darabil be, iñok ez dagiola men egin eta berak ez dagiela iñor zigortu eta egiten dauan dana utsa izan daitela.

VII legea: Merinua ta ordezkaria

Baita: Bizkaia konderrian zazpi merin-alde dagozala: Busturi'koa, Uribe'koa, Arratia'koa, Bedia'koa, Zornotza'koa, ta Durango'koa. Eta olako bakoitzean merino bat dagoala, Uribe'koan izan ezik, emen bi dagoz-eta. Merino bakoitxak ordezkari bat izendatzen dau baiña isillean, bizkaitarrak nora jo ez dakiela, orregaitik zazpi merinalde oneitan ordezkari bat izendatu leike merinoak, ez geiago, gizon lau eta zintzoa izan daitela eta ordezkaria dagoan artean merinoak ezin leike agindu. Agindu nai ba'dau ez dagiela euki ordezkariarik.

VIII legea: Uribe'ko merinoak

Baita: Uribe'ko merinaldea aundia dan lez, an dagozan merino bietariko bat ez da naikoa eta orregaitik esan eben merino biak kargu bakar baten jabe izan daitezela.

IX legea: Urietako alkateak makilla bagerik

Baita: Urietako bete-eragilleak eta alkateak ez dagiela makillarik erabilli eta erabilli ezkerre bizkaiatarrek makillea kendu leikioe, aurretiaz ez erabilteko esanda.

X legea: Korrexidorearen lan-saria

Baita esan eben: Bizkai'ko Jaun aundiak korrexidoreari bere Errege-etxetik ordaindu dagiola, bizkaitarrak ez-lako lan-sariarik emon bagerik, eta egiten daben lazterketalanaren saririk be ez dagiela artu eta dirua azpikeriz artzen daben korrexidoreak zigortuak izango dirala, baiña erreinuko lan-sariak artu daikeezela.

XI legea: Foru-alkateen lan-sariak

Baita esan eben: Foru-alkate bakoitxak Jaun Aundiagandik eta Bizkai'ko dirutzatik artuta ordaiña izan dagiela baiña gero euren lana egiteagaitik ez dabe ezer eskatuko, lenago aitaturako zigorpean.

XII legea: Legezko eragilleen lan-sariak:

Baita esan eben: Prestameruak eta merinuak epaikariaren aginduz iñoren ondasunak errematean saltzen ba'dabez, amarretik bat izango da eurentzat, borruari beste amarren bat ordaindu dagiola eta ez daitela beste saririk emon, bazkaltzeko egun aretan bear dabezan ogetalau maraiak izan ezik eta beste egindako eralketak ordaindu daitezela.

XIII legea: Bete-eragillearen saria zelan ulertzen dan

Baita esan eben: Olako erremateetan artzekodunai osorik ordaindu bear jakela eta eralketai erantzuteko beste ez ba'lego, prestameruak bere amarrena artzeko eskubidea daukala. Baiña ez dagiala artu artzekodunari zor jakonetik eta eralketak ordaindu bagerik, eta ondasunik naikoa ez ba'lego, erremateko ondasunetatik artu dagiala amarrenaren nerrian, ez geiago.

XIV legea: Eragipenaren sariak norentzat diran

Baita esan eben: Eragipena egin eta gero, erremata egin aurretik, bete-eragilleak aldatu egin ba'dira, edo il diralako edo kendu egin dabezela, bete-eragipena egin ebanak sarien erdia artuko dau eta erremata egin ebanak beste erdia.

XV legea: Zordun-ordearen ondasunak saltzen ba'dira, saririk ez artu

Baita: Errematean erosleak errematerako zordun-ordeak izendatzen dabez eta oneik bete-eragillearen menpean katigu dagoz, erosleak ordaintzen ez daulako, zordunaren ondasunak saltzen dira. Olakoan bete-eragilleak ez dau artuko ez amarrenik ez bazkari-ordainik.

XVI legea: Lege au betekeran, saririk ez da izango

Baita: Bete-eragipenak egiten diranean, artzekodunak aurka egiten dabe. Bete-eragilleak ez dagiala artu aurkariakandik amarrenik ez beste saririk, amarrena artu ebelako.

XVII legea: Sariok dirala-ta

Baita: Zordunak epaikariagana joaten ba'dira eta erremata egintzat emoten ba'dabe, orduan bete-eragilleak amarrena artu lei.

LEGE ZARRA (3): BETIKO EPAIKARIAK ETA GORA-JOTEAK**I legea: Gora-deia noz egin eta zertarako**

Baita esan eben: Batzuk lege-auste ariñakaitik katigu egoten dirala eta epaikariak zigor ori ontzat daukela eta zigortuak gora jotzen dabela, zein konderrri-barruan zein kanpoan eta epaikariak ez dautsela jaramonik egiten.

Orregaitik, indarkeri ori uxatzeko agindu au emoten dabe: Bizkai'ko edozein epaikerik gora'dei ori onartu egin bear dauala eta gora deia dagon artean ez dagoia bere-eragipenik eragin, jareitzi baiña eta besterik egiten dauan epaikeriak amar milla marai'ko zigorra ordaindu bearko dau, irutik bat errege-dirutzarako, beste bat deia egin dauanarentzat eta irugarrena bideak konpontzeko.

LEGE ZARRA (4): ALKATEAI KONTUAK ESKATZEA**I legea: Oletako alkateai eta forudunai eta aldunai kontuak eskatzea**

Baita esan eben: Foru-alkateai, oletakoai eta Bizkai'ko aldunai kontu-eskatzea egin bear jakela Bizkai'ko korrexidoreari eta onen ordekoari eskatzen jakon bakoitxean. Eta kargu orreik egokiai emon dagitsezela eta ez lengoai barriri emon salakuntzaren bat ba'dauke arik eta zuribideak ekarri arte.

II legea: Prestameruak eta merinuak kontuak eskatzea

Baita esan eben: Bizkai'ko prestameruari eta merinuak eta onein ordezkariak kontu-eskatzea egin bear jakela Bizkai'ko korrexidoreari egiten jakon bakoitxean, baiña arduradun oneik euren ardurea ordekoai izten dautse sasoi orretan eta kargu ori barriri artuko ez ba'lebe oker ori galazoko litzake.

Ori dala-ta, eragozpen au kentzeko, auxe esan eben: Korrexidoreak olango bete-eragilleak kontu-eskatzea egin bear dautsela eta aginte-makillak kendu, eta gizon lau eta zintzoak izendatu lan ori egiteko eta lengoai ez barriri emon arik eta garbi dagozela agertu arte. Eta karguak barriri artzeko Batzarretik baimena ekarri bearko dabe.

LEGE ZARRA (5): ERREJIMENTURA SARTU KARGUDUNA BAIÑO EZ**I legea: Nortzuk sartu ez errejimentura**

Baita esan eben: Aldunak eta errejimentuko beste kargudunak, korrexidoreagaz alkatuta, Bizkai'ko errejimentuetan erria ondo eroan dagoia, larregikeri, indarkeri eta alperkeri bagerik, eta bidegabeak diranak ez daitezela egon errejimentuetan.

Orregaitik, ez prestamerurik, ez merinurik eta ez onein lekukorik ez daitea sartu errejimentuetara. Besterik egiten dauanak bost maraien zigorra izango dau, Bizkai'ko bideak konpontzeko. Karguduna dana sartu daitea euren menpekoai buruz berba egiteko eta gero urten.

LEGE ZARRA (6): ESKRIBAUAK ETA EUREN KOPURUA TA SARIAK**I legea: Merinaldeetan eskribauen kopurua eta lege-indarra**

Lenengo esan eben: Merinaldeetako eskribauen kopurua zaindu daitea eta kopuru orretakoa ez dan eskribauak egindako agiriak ez daitezela legez egiztagarriak izan.

(Jarraitzeko)

OLAZAR'tar Martin

ABIZENAK

Gorostidi: Gipuzkoako Albiztur'en sortua da eta Bizkaian be ba-dago.

Gorostiak edo "acebo"ak dagozen lekua, eta "-di" atzizkiak ugaritasuna dakar.

Navas de Tolosa'n 1212n. urtean agertzen da.

Gorosarri: Aretxabaletan agertzen da 1625n. urtean.

Jatorria: "Goros-" acebo eta "sarri" mintegia edo landarak dagozen basoa.

Gorrotxategi: Zegaman asi eta Gipuzkoa osoan. Andik etorri jaku Bizkaira.

Lopez Mendizabal'en ustez, "Urretxategi"tik dator, eta urretxak dagozen tokia esan gura dau.

Legazpian, 1475.

Gorroño: Gernika inguruan sortua. Izan leiteke "Gorriño"ren aldakuntza. "-ño" txiki atzizkia da eta "gorri" margoa izan laiteke edo "orre-" sasia be bai.

Goti: Zeberiotik dator eta Elorrioren be ba-dago. Goiti'tik etorria da. Goi ulertzen da eta "-ti" tokiatzizkia da.

Bilbaon 1782.

Goia: Naparroan eta Gipuzkoan. "Goi-" argi dago eta "-a" len "-aga" izana. Seguran 1679. Oñateko baten abizena 1461.

Goiri: Lezaman sortua. Bilbaon agertzen da 1651.

"-iri"k "urrean" esan nai dau, danak goitik aurrean.

Goiria: Naparroatik Bilbao'ra ta Mexikora. "Goiri" bera da "-aga" gaiñeratuta. Goitik urrean dagon etxea. Bilbaon agertzen da 1379n. urtean. Mexikon 1522.

Goitia: Euskalerra osoan zabaldua dago.

"Goiti-" goia eta "-ti" toki atzizkia. "-a" mugatzaillea. Navas de Tolosa'n 1212'an. Alarces 1195.

Goitisol: Gautegez-arteagan XII gizaldian sortua. Gero emen eta Ameriketara zabaldua da.

"Goian dagoan soloa" esan nai dau. Maltako zaldun bat 1703.

Golzarri: (lenago Gorozarri): Aretxabaletatik dator eta "gorostien sarria" edo mintegia esan nai dau. Aramaion 1725.

Gomendio: Berrizko Murgoitio auzotik dator eta Gipuzkoara be zabaldua da.

"G-" gero ezarria da, "oma" bedarlekua, "di-" ugaritasuna eta "-o" toki-atzizkia.

Oñaten agertzen da: 1720.

Gorozika: Tolosa'tik etorri da Bizkaira eta "goroztia" dau oñarri. "-ika" tokia izendatzeko.

Tolosar bat 1346.

Gorordo: Zeanurira eta Gataran. Itzak goroztia esan nai dau eta "-do" toki-atzizkia.

Bilbaon 1726.

Gorosabel: Gabiriatik zabaldua da eta goroztiak dagoen zuloa esan nai dau.

Bergaran 1587

Gorostiaga: Aulestian eta Zeanurira.

Gorostiak dagoen tokia esan nai dau.

Tolosan 1598.

Gorostiza: Zigoitian agertu zan. Orduan erri bat zan eta orain eleiza bat geratzen da. Gorosti asko dagon lekua esan nai dau.

Gatzagan 1524.

Gorria: Ondarribian agertzen 1625. Gizakiari ezartzen jakon ez-izena da eta zer esan nai dauan argi dago: Margo bat. Tolosar batek eukan abizen au 1346n. urtean.

ERROMANIKOA

Aspaldiko urteetan ederti-zaleak erromanikoari begira jarri jakuz eta neu be poztu egiten naz, erti-tankera onen zalea nazalako.

Edertiak jauzika egiten dau bere aurrerabidea: 1º erromanikoa: puntu-erdiko arkuak ta apaingarri gitxi dauzala. 2n. gotikoa: erpindun arkuak eta apaingarri asko dauzala. 3n. berjaiotza: barriro puntu-erdiko arkuak eta apaingarri gitxi. 4n: barrokoa: apaingarriz beterik. 5n. neoklasikua: barriro puntu-erdiko arkuak eta apaingarriz gitxi. 6n. erromantikua: apaingarri askogaz. Jauzi bakoi-txean aldatzen da nortasunaren bizitasuna: erromanikoak ez dauko, bisigotikoak bai, berjaiotzakoak ez, barrokoak bai, neoklasikuak ez eta erromantikuak bai. Eta bardin jazoten da idazkeran be, olako oikuneak jakintza osoa artzen dabe.

IX-X-XI gizaldietan irauin dau gure artean erromanikoak. Goi maillan egozan iru estamentu-erakunderen indarra agertzen dau: Erregea, jauntxuak Gotzaiñakaz batera eta lekaideak. Erria urrin dago. Ori etxegintzan agertzen da geien, baiña irudigintza ta margolaritza be onak dira.

Erromaniku-tankerako edertia bizitasun gitxikoa da, eragin urrikoa, irudiak geldi eta legor agerten dira, orre-lan geroko bizitzara bigira ipinten dau ikuslea.

Noz: IX gizaldian asten da, X gizaldian dago edertasun osoan, Kluny'ko lekaideak etorri ziranean eta eurak ziran etxeginak. XI gizaldian lortzen dau betetasuna.

Erromanikuarenak dira lenengo eleiza aundiak, eta ez jente asko dagolako, Jainkoari gauza aundia egin bear jakolako baiño.

Non: Europa'rik geiena daukagu erromanikuz beterik beterik, baiña batez be donejakue bidean daukaguz gauzarik ederrenak, asi Orreaga'n eta Konpostela'ra arte.

Zelakoa: Ona emen orain erromanikuaren ezaugarri batzuk, baiña ez dagoz guztiak toki guztietan:

Eleiza'k geienez lantindarren kurutzeta dira: Luzera aundia ta zabalera laburragoa. Errilekuak (nave) bat zein iru izan daitekez.

Aurrean absidea dauke, obo edo zirkulo erdia, sarritan alboetan abside txikiak.

Absidearen inguruan jirolea edo ibiltegia.

Erri-lekuaren alboetan leioak ormetan.

Batzutan alboko errilekuak goia ta beia daukez ormai obeto eusteko eta goian triforioa.

Erri-lekuen kurutzeta egiten dan lekuan obo-erdiko sabaia (boveda de medio círculo), petxinen gaiñean eta

goratuta, bitarte ori zinborrioa da eta alboetan linternak daukaz.

Kanpai-leku bi izaten dira, betik asita. Izan leitekez torreak be eleizearen angeluetan edo zokoetan.

Sarreran eleizpea edo atrioa.

Alboan klaustroa: erdian be-barrua, inguruan ibilto-kiak aterpeetan ageakaz eta arkuakaz. Batzutan goia ta beea.

Inguruan lekaide-etxea: eleizea, jantokia, liburutegia, gelak...

Eleizearen gaiñean sabaia edo bobedeia, obo-erdia loturakaz.

Sabaiari eusteko ageak, poligonozkoak naiz kurutze antzekoak.

Ageak: Oñarri lautua, agea bera landuta, trentzak-edo, eta kapitela, emen landarak naiz jeometri-apaingarriak naiz irudiak (erregea esaterako) edo pizti baragarriak, esaterako Armentia'ko elizearen atzean, edo zaldun burrukariak, esaterako Fruniz'en.



Fruniz'ko ate erromanikuaren age bi: ezkerrean erregea, gotzain bi eta musikari bi, beste kapitelak landarak apaingarri. Ba-dago beste bat zaldun burrukariakaz.

Ormak lodiak izaten dira, etxeari eusteko.

Leioak txikiak eta barrua illuna. Goizean lekaideak eguzkia urtetean argia ikusten dabe eta abestu: Urten da argiaren eguzkia...

Ormeari eusteko estriboak ipinten dira, gero gotikoan arbotanteak izango dira. Arazo bat izaten da teillatuak kanpora egiten dauan indarrari eustea.




Santillana del Mar'eko atean pantokrator edo alguztiduna

Agerik-age arkuak ipinten dauz, beti obo-erdikoak, bardin leioen gaiñean, obo-erdia iñoz-iñoz goratu egiten dabe, iruburu-ko egin be bai.

Apaingarriak: Ateetan ipinten dira batzuk beste batzuk itusuren barrenetan, kapiteletan eta absidean. Atekoa izaten da apaindua: turuta-antzekoa (abocinado) eta arkiboltak dauzala zortzi-inguru, goian tinpanoa eta onen erdian giltzarria edo klabea Kristo'ren irudiagaz. Ateak lau bat age eukiten dauz, ez bardiñak, apainduta. Leku guztietan erre agertzen dira pizti bildurgarriak eta landarak naiz jeometri-apaingarriak.

Nondik: Frantzia-erdian eta Italia'ko iparraldetik agertu zala dirudi, baiña toki askotan sortu eta gero alkartasuna lortu be bai,



Portugal: Koimbrako gotzain-eleiza erromanikoa

Portugal'en be zabaldu da eta Santiago bidean ederlan arrigarriak dagoz, bide guztian.

Margoak be ugari dagoz erromanikuan, eta ederrak, baita leiar (bidriera) eta bitxiak be.

Olazar'tar MARTIN



Lekaide kluni'tarren eleizea



Angulemako gotzain-eleiza erromakua

BALE-DENPORAK

Bizkai'ko kairik zarrena Bermeo da, zalantza barik. 1082n. urtean agertzen da Donemiliane'n. "in portu de Vermelio" egoan Mikel deunaren eleizea eta au Donemiliane monastegiari emoten jako.

Hita'ko Artzipreste idazleak Bermeo'ko bokartak eta beseguak gogortzen dauz.

Ur aundietako arrantzaleen artean ospetsuenak bale-zaleak izan ziran eta erriko ikurdian balea agertzen da: beste kai-erri askotan lez.

Bizkaia'n berton asi ziran bale mota bat eizatzen, baiña gero urriñago joanbearra izan eben, XIV gizakian joaten ziran ara, Kolon baiño askoz lenago.

Olazar'tar Martin



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

15.- AMABOSTGARREN SALMOA: GIZAKUNDEA

Jakobus berriak zaituzteke Baituan!

Jaun-goi-ko Ai-ta mai-te zai-
tu-gu za-ru lu-rran E-gi-ke-a Jain-ko
Se-me-a, mai-te zai-tu-gu gu-ti-
on Sa-ba-tai-ke-a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ra a-lai-ta-zun e-mai-ke-a gu-re
a-ni-man Se-na-ria ee-ra. po-za
sor-tzen lan-gi-ke-a

1

Andre Mariak bere baimena
eman zuan istantean,
Kriston gorputza osatu zuan
Birjiñaren sabelean.
Anima egin ta jarri zuen
gorputzarekin batean,
gorputz-arimak Jainko-Semean
Jaungoizko izatean.

2

Jaun Espiritu Santuan lana
izan zan Aurra sortzeko,
Jainko-Semea gizon egin zan
gu danok zeruratzeko.
Guk ezagutu ezin doguna

sinistu ta aitortzeko,
eskaten zaigu Bera maitez
bere naia betetzeko.

3

Ezin konta-ala aingero Jaunak
eman zizkon Mariari,
ondo zaitzeko Maria eta
Jainko gizon eginñari.
Ama Birjiñak zaituzten zion
aintza emanaz Jaunari,
baiñan ezin esan zion ezer
Jose bere senarrari.

4

Ama Birjiña alai bizi zan
lanean etxe barruan,

baiñan zekian Isabel nola
semearen zai zeguan.
Jaunari galde au egin zion:
berak zer egingo zuean.
“Juan eta jarri grazian aurra
jaio baiño len munduan”.

5

Aingeruari eskatu zien
gai onetan laguntzeko,
agerturikan erantzun zien
“Gaude gogor serbitzeko.”
Au erabaki zuan urrena
agindu au betetzeko:
senar Joseri bere baimena
ontarako eskatzeko.

6

Egun batean esana zion
Jauna ta senar nerean.
Jaunaren argiz ezagutu det
Isabelek du semea.
Nere lengusu agorra zana,
Zakariasen andrea;
au izango da Jaunari poza
eta aintza ematea.

7

Uste det nik au zor diotela
lagundutzero juateko,
eta komeni diran gauzetan
espirtua pozteko.
Zure gustoko lana bada au
naukazu zure mendeko,
eskaten dizut baimena eta
zer egin zuk agintzeko”.

8

Jaunak biotza argitu zion
Joseri erantzuteko,
erantzun zion: “Nere andrea
naukazu zu serbitzeko.
Ez det dudatzen zure gogo au
dala Jainkoa pozteko,
ez arritzeko zu ikustean
nago zuri laguntzeko.”

**(16) AMASEIGARREN
SALMOA: MARIK BIXITATU
ZUAN ISABEL**

1

Mariak jarri zuan eguna
Josek eskatu bezela,
berak billatu zuan asto bat,
biurtuko ziotela.
Ogia eta arrai batzuek
frutarekin zituela,
Maria jarri astoan eta
Josek artuko zuela.

2

Maria jarri zan belauniko
etxetik erten zanean,
bere senar Joseren oñetan
apaltasun aundiñean.
Eskatu zion bedeinkatzeko
Jainkoaren izenean,
arriturik ta bildurturikan
eman zion azkenean.

3

Jainko gizonak luzatu gabe
juatea nai izan zuan,
bere aurreko izango zana
santu jartzera munduan.
Esana zion: “Ama, Ni nago
azkar juateko goguan.”
Maria jeiki eta juana zan
au ezagutu onduan.

4

Maria jua zan asto gaiñean
Josek astoa artuta,
galdetzen zion: “Ondo al zuaz?”
batzuetan geldituta.
Joseri poza sortzen zitzaion
Mariak begiratuta;
ixilik zeukan sakramentua,
etzan izan aginduta.

5

Oraindik etzan denbora eldu
grazi au ezagutzeko,
eta Mariak ixilik zeukan
Jainkoak agertutzeko.
Ogeita zazpi legua zeuzken
Judeara eldutzeko
Nazaretetik Zakariasen
etxe orretan sartzeko.

6

Au zan lenengo prozesioa
Jauna gizondu zanean:

Nazaretetik Isabel gana
laugarrengo egunean.
Jaunak zekarren maitetasuna
sutan ipiñi naiean,
Maria izan zuan gurdia
Jainkoa zijuanean.

7

Ama Birjiñak ikusten zuan
Jose bere serbitzari,
umiltasunak etzion uzten
nor zan esaten berari.
Otoitz beroak egin zizkion
Mariak Jaungoikoari:
Berak agertu zeiola dana
Jose bere senarrari.

8

Lau egun pasa ziran bidean
Isabelgana juateko,
ostatuetan gelditzen ziran
gau illunak pasatzeko,
ikusitako pobre danari
laguntzen zien pozteko,
Birjiñan itzez andre gaixo bat
sendatu zan bizitzeko.

**(17) Amazazpigarren salmoa:
Mariak abesten du Jaungoikoa**

1

Eldu ziraden Juda erriko
Zakariasen etxera,
Zakariasek eraman zuan
Jose beren sukaldera,
Isabel santak Ama Birjiña
beste leku apartera.
Birjiñak oni: “Jauna zurekin”.
Berak: “Zurekin batera”.

2

Jaunak Isabel Jaun Espiritu
Santuarekin bete zuan
Jainko gizonak aurra grazian
jarri zuan momentuan.
Ikusi zuan Joaneke Jesus
Marian nola zeguan,
adoratzeko belaunikatu
zan Isabelen barruan.

3

Auxe izan zan: aurra saltatu
Isabelek sentitua,
uso arrazoiz ta grazi doaz
au zan santu biurtua.
“Andre guztien artean zera
Maria, bedeinkatua;

baita ere da bedeinkatua
sabelen dezun frutua.

4

Ama Birjiñak ondorenean
au da abestu ziguna:
“Abestutzen du nere animak
Jaunaren aunditasuna;
eta gogua poztutzen daukat
nere Salbatzaille Jauna,
berak begiratu zualako
nere ezereztasuna.

5

Oraindik danak deituko naue
zorionekoa naizela,
dezakeanak nerekin gauza
aundik egin dituala.
Bere izena degu santua
ta errukia duela,
gizaldietan bizi badira
bildur santu diotela.

6

Bere besua agertu zuan
indartsua dezakenak,
uxatzen ditu beregandikan
biotzez arro direnak.
Altsuak bota zitun aulkitik
jaso umillak zirenak,
ase zituan gose ziranak
ustu abertats zeudenak.

7

Beregan artu zuan Israel
errukian oroituta,
zeukan bezela Abrahameri
betirako aginduta”.
Isabel santak entzuna da au
Mariak an kantatuta.
Orain dakigu, berak ikasi
ta esanda arrituta

8

Jose santuak, etxe onetan
iru egun zituala,
esana zien bere etxera
bakarrik bazijuala;
andre Maria lagundu zeien
bertan lagatzen zuala,
zijuanean abisatzeko
billa etorriko zala.

**ALDALUR'tar JUSTIÑE
(LEKAIME KLARATARRA)**

EZ, GERO, ERRIAK METROZ NEURTU!

Egun auetan, Ebro'tik beraldeko erdal-izparringi bati begiralditxo bat ematen ari nintzaiola, Euskaldunoi buruzko idazkaia irakurtzea egokitu zitzaidan. Eta beste zenbait gauzaren artean, –ez dakit nik, ba, nolako asmo onez-edo egindako lan artan– euskaldunok Erri txikia erazten dugula esaten zigen.

Zer da idazleak aldean uzten ziguna? Erri edo nazio aundia erazten dutenak baiño okerrago bizi gindezkela askatasunean?

Agian, Luxemburgo (adibidetzat arturik) bere 2.586 km. karratuekin eskale-zurrian txiro bizi al da auzoko Erri aundi oiei konplexuz eta bekaitzez begira?

Antziñako latinu-erriek ala zioten: “Parva domus, magna quies”, etxe txikia, pake aundia. Sendiari pake ta lasaitasun osoan bizitzeko etxe txiki edo xurtua zaiola egokien, alegia: txukuntzen, zaitzen eta jaurtzen errezago da-ta.

Ba, etxeari buruz jalkitako gauzatxo polit au, nazioari buruz ere esan daitekela uste dut. Etxe xurtuan, nazio xurtu ta bilduan antzeraxe, dana xalo ta ezaguna egiten da. Etxe-barruko sendi-giroa, tresnak, altzari edo erredezak eta abarrak, gure nortasunaren erraiñu ta jarraipen izatera eltzen diran antzera, erri txikia erazten duten gauzaki guztiak, mendi ta ibaiak, uri ta ikusgaiak geure buruarekin bat izatera eltzen dira.

Begi aurrean izan oi dan guztia ezagutuz, gauzak eta pertsonak alegia, biziera ere barrenkoiagoa egiten da, kuttuntasun audikogoa, ingurualde guztiarekin alkartuagoa; itz batez, gureagoa, maitagarriagoa. Beraz, zergatik landerragoa aza utsak jan bearrean?

Gaiñera, nik ez dut uste nazio aundirik dagoanik. Ez da miaketan eta azterketan buruzgain ibilli bearrik, laterri aundi deitura duan batean nazio txiki banaka batzuk ba-dirala ikusteko. Estadu aundi batean bizi dirala, bai! baiñan sarri elkarren ezagutzarik gabe eta zenbait aldiz izterbegi, etsai.

Edestiaren joanean eta erri zaar diran Estadu aundietan, Errusia'n bezela, erri-banaiaketa edo bariedade nazionalek arrigarriri irauten dute, naiz-eta txiki oiek aspalditik uste ez bezelako zigorrak eta jazarketak jasan-bear izan Erri-batasunaren aldetiko diranengandik. Baiñan, ikusia dago indarrezko alegin txatxu oien ezereztasuna, lege naturalak ez baitira gabetik goizera aldatzen, ezta izkillu-indarra tartetuarren ere. Izatez eta ez kutiziz berdiñeza dana batu nai izatea, arrokeria besterik ez da. Eta askotan, arrokeria baiño areagoko zerbait, au da, nausikerizko eta gizatzarkerizko zanpakuntza, neurrigabeko oillarkeri ta oldarkeria.

Errusia'n iparraldeko laponak eta sortaldeko tartaruak bizieraz eta gobernabidez batu nai izatea, arrokeriak itxututako gizonari bakarrik otu dezaioke. Eta Errusia'ri buruz dioguna alda dezakegu noranai.

Nazioak beti txiki xamarak dira, “nazio” izan mugatua eukitzeko bear-baldintzak dituzten erri ta taldeak, leiñu ta lurraldeak txikiak baitira geienbat.

Erri txikien etsai diranak, euren asmo makurrak estaltzearren eta euren buruak oso aurrera-zale agertzearren, praktikotasunari buruzko argudioak-eta asmatu oi dizkigute. Erri txikiak oso bizi-nibela beekoa dutela eta gorabiderik ezin lortu digutela, alegia. Baiñan, au dagoaneko ba dakigu ez dala egia.

Bizi-galga ortan agian gorago egon daitezke, eta ez material-maillan bakarrik, baita gogokietan ere. Bestelakorik aitortuko ba'gendu, gizaki argi ta guapuenak Estadu aundietan bakarrik jaiotzen dirala esatea bezelaxe litzake. Nere ustez, aurkakoa azaltzea askoz errezago litzazuke.

Gizakia, emozio aundiagoz, bizitza barrenkoiagoz bizi da nazio txiki batean, Estadu erdiguneratu ta unformatuan baiño. Eta orregatik, emaitz obeak ematen ditu. Jaso begetara gizadiak gizaldien joanean eman dituan gizon-emakume argiaren izenak, gogo-gaietan gaillendu diranak batez ere eta ikusiko dugu zein neurritan eta eiñean aurkitzen diran nazio txikietan sortu ta bizi izan diranak. eta au, orrela gertatu izana, naturala eta berezkoa da.



Erri txiki batean, bizilagunak etengabeko arremanetan dauden tokian, belaunaldi bakoitza aurretikoen berdintsua dana, tradizioak utzitakoa obekiago iraunerazten dan tokian, bidezkoa da, bai gogo-emaitzen aldetik batez ere aberatsagoa gitea gizakia.

Euskaldunon aberria alakoxea da: eremuz bildua baiñan edertasunez bikainki ta txairoki jantzia. Itxasoak damaio luzapena. Euzkadi!!! zure deitura berri au 1896'gn. urtean sortua (emaitz gogokioen urrialdian) eta ordurako abertzale-argitalpenetan azaltzen dana lenen aldiz, a ze nolako dardaraz bizierazi zigun azken arnasetan zetzan gure Erria urtetan barrena.

Urtetan eta gizalditan gure abendak bere animaren erro-errotik ateratzen asmatu etzigun Erri-izena, senargi ezilkorrez ornitutako abandotar batek, berak irudimen almentsuz asmatutako itz yaukal orretan irauli zituan bere irrika guztiak. Eta guri, gaurko euskaldunoi, ondorioztatutu. Eresiz eta poemaz blaitutako EUZKADI itz maillukari onek berarekin dakar indarririk biziena.

Euskaldunok, bi milloi t'erdi geranok eta ogei millaren bat kilometro laukotu besterik betetzen ez dugunok, dalako “parva domus” klasiku ontan gaude, etxe txikian alegia. Eta gure bizitza, gure jaurbidea gure naitara utziko ba'ligute, paketsu lerratuko litzake, au da, dalako “magna quies”, gozotasun betean.

**Osintxu'k
E'tar G.**



BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²